BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA: ERANDION «E!SEX - SEXU-HEZIKETARAKO PROGRAMA INTEGRALA» EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA (ESP 09CONT-2025/000001)

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Dokumentu honen xedea da Erandion «E!SEX - Sexu-heziketarako programa integrala» emateko zerbitzua kontratatzea.

2.- PROIEKTUAREN DEFINIZIOA

Programa hau Erandioko Udaleko Gazteria Arloak sustatu du, eta helburua zera da: ikasleek eta beren inguruko gizarte-eragileek (familiak, irakasleak, eta abar) bizimodu osasuntsuagoa izateko beharrezko tresnak eskuratzea. Horretarako, gaur egungo errealitatearekin eta beharrizanekin bat datorren planteamendua egingo da.

Asmoa zera da, ume eta gazteei kontrol-estrategiak ematea beren bizitza erabakiko duten aspektuen inguruan. Proiektu hau ez da mugatzen haurdunaldiak eta sexu-transmisioko gaixotasunak saihestu eta prebenitzera. Balioetan hezi nahi du, ezagutza landu eta autonomia sustatu, sexismoa, homofobia, transfobia eta edozein motako indarkeria gainditzeko. Oinarriak errespetua, elkarbizitza, eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna dira. Horrela, norberaren errealitatea eta inguruko pertsonena hobeto ulertzen lagunduko digu. Horrek bizi-kalitate hobea eta independentzia handiagoa izatera eramango ditu.

Azkenik, udalerriko ikastetxeekin ere lan egingo dugu. Normalean, zentro horiek eskaintzen dutena eskasa izaten da arlo honetan, beraz, osatu egingo dugu, eta curriculumaz kanpoko arloetan laguntza pedagogiko gisa funtzionatuko du.

Helburu orokorrak hauek dira:

- Ume eta gazteek kalitatezko sexu-heziketa izatea.
- Ikastetxeetan sexologoaren figura formalizatu eta egonkortzea, baliabide pedagogiko moduan.
- Beharrizan zehatz eta errealetan oinarritutako bide-laguntza egitea.
- Sexualitatea modu osasuntsu eta arduratsuan bizitzen irakastea.
- Pentsamendu kritikoa garatu eta erabakiak hartzeko gaitasuna ematen duten metodologiak aplikatzea.
- Sexualitatearen inguruko egoerak kudeatu eta baloratzeko estrategiak ikastea.
- Enpatia, berdintasuna eta errespetua sustatzea.
- Sexualitatea normalizatzea, balio positibo eta osasungarriekin lotuz.
- Estereotipo eta jokabide erasokorrak baztertu eta desagerrarazteko aldaketa sozialak bultzatzea.
- Elkarrizketa, hausnarketa eta analisi kritikoa sustatzea.
- Genero-ikuspegia txertatzea prozesu guztietan, zeharkako ardatz moduan.
- Ikastetxeetako programazioa osatu eta aberastea, sexualitatea modu integralean eta zeharka landuz.
- Jokabide arriskutsuak prebenitu eta antzematea.

- Sexu-identitatearen bidez autoestimua lantzea.

3.- ZERBITZUAREN NORAINOKOA

Zerbitzua emango duen erakundea aditua izango da gazteria arloko politika eta jardueretan eta sexualitate eta heziketa arloko esku-hartzean. Behar beste teknikari egongo dira aurrez aurreko arreta ematen, proiektuak burutzeko. Gazteria Arloak zerbitzua gainbegiratuko du, laguntza emango du eta elkarrekin koordinatuko dira.

Burutu beharko diren funtzioen artean, honako hauek izango dira nagusiak: ikastetxeetan esku hartzea adinaren eta ezagutzen araberako programa ezberdinen bidez; sexu-aholkularitza zerbitzua eta familia zein irakasleei prestakuntza ematea.

Helburu hauek bete beharko dira:

- Sexualitatearekin erlazionatutako edozein aspekturi buruzko informazioa ematea.
- Taldean edo banaka konpontzea gaiaren inguruan sor daitekeen edozein zalantza.
- Ideia okerrak, mitoak eta uste faltsuak zuzentzea.
- Neska eta mutilen arteko komunikaziorako espazioak sortzea, tolerantzia eta konfiantzan oinarrituta.
- Elkarren arteko hurbilketa lantzea, desberdintasunak onartuz eta errespetatuz.
- Konfiantza-giroa sortzea, edozein gai, kezka edo zalantza argitu ahal izateko.
- Sexuaren inguruko argibideak ematea eta hausnarketa egitea.
- Sexuen arteko harreman-estiloak lantzea, elkarrekin ondo egoteko eta banaketak ere hobeto kudeatzeko.
- Komunikazioa lantzea: norberaren desioak adieraztea, ukatzea, negoziazioa, akordioak eta desadostasunak.
- Gaiari buruzko lengoaia espezifikoa eta argigarria ematea.
- Sexualitatea modu osasungarri, positibo, arduratsu eta pozgarriagoan bizitzeko ezagutzak eta jokabideak lantzea.
- Zailtasunak gainditzea, arrisku-egoerak eta sexualitatearen bizipenaren ondorio negatiboak murriztea.
- Eremu formaletan eta ez formaletan gazteekin lan egiten duten profesionalei, bai eta gurasoei ere, sexualitateari buruzko informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskaintzea.
- Gure komunitatean ditugun baliabide eta zerbitzu espezializatuak erabiltzeko orientabideak eskaintzea.
- Ikastetxeetako irakasleei ikasgelan esku hartzeko estrategia zehatzak ematea.
- Irakasleei balioetan hezteko beharrezko ezagutza zientifiko-tekniko, soziologiko eta didaktikoak ematea, eta ikasgelan heziketa sexu-afektiboa lantzeko gaitasunak garatzea.
- Familiek kezkak adierazteko, zalantzak argitzeko, esperientziak partekatzeko eta abarrerako eremu bat izatea, arlo horretan seme-alabekin komunikazio hobea izateko.

Gainera, honako egiteko hauek burutu beharko dira:

- Erandion zerbitzua bultzatu eta sendotzea.
- Herriko ikastetxeetan beharrezko esku-hartzeak egitea.
- Beharrezko diren tailer, jardunaldi, mintegi, hitzaldi edota bestelakoak egitea.
- Jarduerak garatzeko beharrezko materialak hornitzea.
- Gazteria Arloarekin koordinatzea esku-hartzeen edukia, programazioa eta betearazpena zehazteko, eta edozein gertakariri buruz hitz egiteko.
- Ikastetxe eta ikasleekin zuzenean koordinatzea.
- Erabiltzaileei asebetetze-inkestak egitea.
- Hiru hileroko txostenak egitea, hala eskatzen bada.
- Egindako saioak ebaluatzea eta emaitzak aztertzea.
- Azken txostena egitea.
- Balioak zaindu eta estereotipoak, aurreiritziak eta irudi negatiboak baztertzea.
- Udalerriko auzoetako gazteen arteko harremanak sendotzea.
- Gazteen informazioa, iradokizunak eta proposamenak jasotzeko aukerak bideratzea.
- Proiektua hobetzeko eta berritzeko proposamenak egitea.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxista kasuak izan daitezkeenak udal zerbitzuetara deribatzea.
- Gainerako udal arloetako langileekin koordinatzea, beharrezkoa denean.
- Zerbitzua ondo garatzeko beharrezkoa den beste edozein egiteko.

Gutxienez 259 orduko zerbitzua eman beharko da, kontuan izanda esku-hartzea, aholkularitza eta prestakuntza. Gainera, 24 ordu ere gehituko dira, koordinazio-lanetarako eta txostenak edo bestelako administrazio-lanak egiteko.

Ikastetxe hauei emango zaie zerbitzua: Ignacio Aldekoa, Jado Ikastetxea, Goikolanda, Altzaga Ikastola, Astrabudua BHI, Erandio BHI, Oinarrizko Lanbide Heziketa eta Ategorri BHI.

Orduen banaketa dinamikoa izango da; horrela, ikasturte bakoitzean gela eta ikastetxe bakoitzaren beharrizanetara egokituko dira. Banaketa erakundearen, ikastetxearen eta Udalaren artean adostuko da. Ikasleek edukiak ez errepikatzeko moduan antolatuko da.

4.- ENPRESA ADJUDIKAZIO-HARTZAILEKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA

Adierazitako jarduerak burutzen dituzten langileek honako ezaugarri hauek eduki beharko dituzte aldez aurretik:

- Gizarte arloko adarren batean goi mailako titulazioa izatea (Psikologia, Gizarte Heziketa, eta abar).
- Sexu Heziketa eta Sexu Aholkularitzako Diploma, Sexologia arloko Masterra edo baliokideak.
- Euskarazko C1 (edo baliokidea)
- Gutxienez 3 urteko esperientzia nerabeekin, gazteekin eta ikastetxeekin antzeko lanak egiten.
- Sexu-delituen ziurtagiri negatiboa, gehienez 6 hilabeteko antzinatasunarekin.

5.- TXOSTEN PARTZIALAK ETA JARRAIPENA:

Erakunde adjudikazio-hartzaileak Erandioko Udaleko Gazteria Arloari entregatu beharko dio, zerbitzuaren urte bakoitzeko uztailaren 31 baino lehen, burututako ekintzen balorazio kualitatibo eta kuantitatiboa azaltzen dituen memoria. Memoria horrek honako puntu hauek edukiko ditu, gutxienez:

1. Garatutako programen deskribapena, kronograma eta hizkuntza.
2. Betetze-maila, balorazio kuantitatibo eta kualitatiboa.
3. Informazioa jasotzeko metodoak eta emaitzen adierazleak.
4. Parte-hartzaile kopurua eta ezaugarriak (datuko jasoko dira, adina, sexua, jatorria eta bestelako datu interesgarrien arabera sailkatuta).
5. Proiektuan sortutako dokumentuak, argazkiak eta ikus-entzunezkoak.
6. Hobetzeko iradokizun eta proposamenak.

Gainera, zerbitzua ondo koordinatzeko asmoz, aldizka jarraipenak egingo dira erakundearekin edota proiektuen koordinatzailearekin. Pertsona horri eskatu ahalko zaio koordinazio bilera puntualetara edo hitzaldi espezifikoetara joateko.

Egiteko horietarako 24 ordu aurreikusi dira.

6.- ADJUDIKAZIO-HARTZAILEAREN BETEBEHARRAK

6.1.) ANTOLAKETA:

Erakunde adjudikazio-hartzaileak elementu pertsonal eta material nahikoak izango ditu kontratua behar den moduan burutzeko.

6.2.) ARDURADUNA IZENDATZEA:

Erakunde adjudikazio-hartzaileak arduradun bat izendatu beharko du, lanari dagokion guztian Erandioko Udalaren aurrean ordezkari moduan aritzeko.

Pertsona hori izango da kontratatutako lanaren arduraduna; erakunde adjudikazio-hartzailearen izenean erabakiak hartzeko eskumena izango du, ikuspuntu legal zein formaletik, eta bera izango da kontratuaren inguruko gaiez hitz egiteko pertsona bakarra.

6.3.) GIZA-BALIABIDEAK:

Giza baliabideen arloan erakundeak langile kualifikatu nahiko izan beharko ditu burutu beharreko jardueretarako. Gainera, gizon eta emakumeen arteko presentzia orekatua izan beharko da.

a. Edonola ere, aurreko paragrafoan adierazitakoari kalterik egin gabe, adjudikazio-hartzaileak zehaztuko diru berariaz langileen beharrizanak. Lan-taldea ondo koordinatua egon behar da eta gaitasun nahikoa eduki beharko du epe barruan eta modu egokian zerbitzu guztiak emateko.

b. Langile guztiak izango dira adjudikazio-hartzailearen parte, eta ez da harreman juridiko edota laboralik egongo langile horien eta Erandioko Udalaren artean, ez kontratua indarrean egon bitartean, ezta gerora ere.

c. Zerbitzuko langile guztien alta eta bajak Erandioko Udalari jakinaraziko zaizkio. Langile berrien curriculuma eta laneko dokumentazioa entregatuko da, baita hizkuntza eskakizunen agiriak ere.

d. Kontratuaren lehenengo hilabetean langileen kontratuen inguruko dokumentazio osoa entregatuko da, baita langileen estaldura-asegurua ere.

e. Kontuan hartuta 1/1996 Lege Organikoa, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoa, 26/2015 Legeak eta 45/2015 Legeak aldatua, boluntariotzari buruzkoa, adingabeekin lan egiten duten irakasle zein monitore guztiek sexu-delituen erregistro zentralaren ziurtagiri negatiboak aurkezteko betebeharra daukate. Ziurtagiri hori entregatu beharko da zerbitzua ematen hasi orduko.

6.4.) EUSKARA:

Erandioko Udaleko 2018-2022 Euskara Planean ezartzen den moduan: “Kontratistaren eta Erandioko Udalaren arteko harremanetan euskara erabiliko da, orokorrean. Kontratuaren xederako, “orokorrean” esaten dugunean, zera esan nahi dugu:

a) Ahozko komunikazioetan, kontratuaren xederako Erandioko Udalarekin harremanetan jartzen diren langile euskaldunek euskaraz egingo dute lehenengo hitza. Erandioko Udalak euskaraz egiten badie euskarazko ezagutza nahikorik ez daukaten langileei, adjudikazio-hartzaileak eskura jarriko ditu gaitasun linguistiko nahikoa duten langileak, Udalarekiko harremana euskaraz garatu ahal izateko.

b) Idatzizko jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, hartzaile zein igorleak euskara hautatzen dutenean izan ezik.

Era berean:

a) “Zerbitzu publikoen kudeaketa-kontratuetan eta obra publiko eta zerbitzuen emakida-kontratuetan, kontratuaren xedearen barruan herritarrenganako zerbitzuak daudenean edo herritarrekin edo hirugarren pertsonekin harremana izaten denean, adjudikazio-hartzailearen eta pertsonen artean erabiltzen den hizkuntza, ahoz zein idatziz, erabiltzaileak edo hirugarren pertsonak aukeratzen duena izango da. Aukeraketarik egiten ez denean, erakundeak bi hizkuntza ofizialak erabiliko ditu pertsona fisiko zein juridikoekin komunikatzeko. Faktura eta trafiko arloko bestelako dokumentuetan ere hala egingo du, eta, edonola ere, herritarrak edozein unetan hautatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bat. Edozein kasutan, kontratistak beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak erabiliko ditu zerbitzuaren hartzaileekin euskaraz komunikatu ahal izateko.

b) Azterketak, txostenak, proiektuak edota antzeko bestelako lanak egin behar diren zerbitzu-kontratuetan, baldintza moduan jarriko da bi hizkuntza ofizialetan entregatzea, software ezberdinen testu interfazeak eta soinu-interfazeak barne. Hala ere, euskararen ezagutza eta erabilera kontratuaren xedearekin espezifikoki lotua dagoenean, Baldintza Teknikoen Agirian aurreikusi ahal izango da prestazioa osorik euskaraz egitea.

c) Herritarrei arreta emateko zerbitzuak barne hartzen diren zerbitzu publikoen kudeaketa-kontratuetan, erakunde kontratistak euskara eta gaztelania erabili ahal izango ditu errotulazioan, megafonia bidezko komunikazioetan, erabilera-jarraibideetan, sortzen dituen produktuen etiketa eta bilgarrietan eta zerbitzuaren prestazioak sortzen dituen dokumentuetan.

6.5.) BERDINTASUNA ETA GENERO-IKUSPEGIA:

Kontratuaren garapenean, erakunde adjudikazio-hartzaileak gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatuko du arlo guztietan: tratua, enplegua, sailkapen profesionala, permanentzia, prestakuntza, ordainsariak, lanaren kalitatea eta egonkortasuna, lanaldiaren iraupena eta antolaketa. Kontratuak iraun bitartean bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa kontziliatzeko neurriak mantenduko dira. Erakundeari eskatu ahal izango zaio aurretik aipatutako neurriak egiaztatu eta azaltzeko.

Programan zehar egindako dokumentu, publizitate, bideo eta materialetan hizkera ez sexista erabiliko da, eta ez da estereotipo sexistarik edo diskriminaziorik erakusten duen irudirik sortuko. Era berean, emakumeen irudiari dagokionez, berdintasuna, aniztasuna, oreka eta genero-rol eta identitateen aniztasuna kontuan hartuko da.

Proposatutako proiektuan, helburuetan eta jardueretan emakumeei eragiten dieten desberdintasun sozialak izango dira kontuan. Horregatik, Gazteria Arloak dokumentazio osoa aztertuko du, erabili eta zabaldu aurretik.

6.6.) BALIOAK

Gainera, burutzen diren ekintza guztietan, zuzenean edo zeharka, parte-hartze aktibo eta kritikoa sustatuko da eta gaitasun sozialak landuko dira, lehentasunezko aspektu moduan.

7.- ERANDIOKO UDALAREN BETEBEHARRAK

1. Lan-irizpide eta jarraibideen berri emango du, proiektuak garatzeko orduan kontuan izateko.
2. Salbuespen moduan, eta proiektuaren barruan komunikazioa errazteko, erakundea edozein dela ere, Udalak helbide elektroniko bat eta telefono mugikor bat jarriko ditu eskura (esex@erandio.eus).
3. Zerbitzua ondo ematen dela eta agiri hauetan jasotakoa betetzen dela egiaztatzeko, arduradun bat izendatuko du, eta erakunde adjudikazio-hartzaileari esango zaio pertsona hori nor den.
4. Lan-metodologian zein eguneroko kudeaketan eragin dezaketen aldaketa edo aspektuei buruzko informazioa emango du.
5. Udalerriko erakunde sozialekiko harremanak bideratuko ditu.

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACION DEL SERVICIO "E!SEX – PROGRAMA INTEGRAL DE EDUCACIÓN SEXUAL" EN EL MUNICIPIO DE ERANDIO (EXP 09CONT-2025/000001)

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del presente documento es la contratación del servicio "E!SEX – Programa Integral de Educación Sexual" a desarrollar en Erandio.

2.- DEFINICIÓN DEL PROYECTO

La finalidad de este programa, que se impulsa desde el Área de Juventud del Ayuntamiento de Erandio, consiste en que el alumnado y los agentes sociales a su alrededor (familias, profesorado, etc.) desarrollen la capacidad de acción para conseguir una vida más sana y un medio más saludable, mediante un planteamiento pedagógico acorde a la realidad y a las necesidades actuales del municipio de Erandio.

La intención es facilitar a infancia y juventud estrategias de control sobre los aspectos que determinan su vida. Este proyecto no se limita a la prevención de embarazos no deseados o enfermedades de transmisión sexual, sino que busca educar en valores, conocimiento y autonomía, para superar actitudes como el sexismo, la homofobia, la transfobia o la violencia en cualquiera de sus vertientes. Se cimienta en el respeto, la convivencia, la igualdad entre mujeres y hombres y contribuye a entender mejor la realidad propia y de las personas de alrededor, lo que deriva en una mayor calidad de vida e independencia.

Por último, se trata también de colaborar con los centros educativos del municipio, complementando una oferta que normalmente resulta escasa y ofreciendo un servicio del que se puedan valer como apoyo pedagógico en ámbitos extracurriculares.

Los objetivos generales son:

- Facilitar que infancia y juventud tengan acceso una educación sexual de calidad.
- Formalizar y estabilizar la figura del/la sexólogo/a en los centros educativos como recurso pedagógico.
- Hacer un acompañamiento basado en las necesidades concretas y reales.
- Aprender a vivir la sexualidad de una manera sana y responsable.
- Aplicar metodologías que permitan el desarrollo del pensamiento crítico y capaciten la toma de decisiones.
- Aprender estrategias para valorar y saber gestionar diferentes situaciones en torno a la sexualidad.
- Fomentar actitudes de empatía, igualdad y respeto.
- Normalizar la sexualidad asociándola a valores positivos y saludables.
- Impulsar los cambios sociales necesarios para la erradicación de estereotipos y comportamientos violentos.
- Promover el diálogo, la reflexión y el análisis crítico.
- Introducir la perspectiva de género como eje transversal en todos los procesos.

- Complementar y enriquecer la programación de los centros educativos trabajando de manera integral y transversal la sexualidad.
- Prevenir y detectar conductas de riesgo.
- Desarrollar la autoestima a través de la identidad sexual.

3.- ALCANCE DE LOS TRABAJOS

El desarrollo del servicio se prestará mediante una entidad experta en políticas y actividades de juventud y en todo aquello relacionado con la sexualidad, la educación y la intervención, a través de la asistencia presencial de personal técnico necesario para la ejecución del proyecto en coordinación, supervisión y apoyo del Área de Juventud.

Entre las diferentes funciones que se deberán llevar a cabo, la intervención en centros educativos con programas de diferentes temáticas adecuados a edad y conocimientos previos; el servicio de asesoramiento sexológico y la formación a familias y profesorado serán las principales.

Deberán cumplirse los siguientes objetivos:

- Informar sobre cualquier aspecto relacionado con la sexualidad.
- Resolver en grupo o de manera individual cualquier duda que pueda surgir en torno al tema.
- Corregir ideas erróneas, mitos y falsas creencias.
- Promover espacios de tolerancia, confianza y convivencia para la comunicación entre chicas y chicos.
- Cultivar el acercamiento desde la aceptación y el respeto a las diferencias.
- Crear un clima de confianza a través del cual tengan cabida todo tipo de cuestiones, inquietudes y dudas.
- Clarificar y reflexionar sobre cuestiones de ámbito sexual.
- Trabajar estilos de relación entre los sexos para que se produzca el encuentro y gestionar mejor los desencuentros.
- Trabajar la comunicación: la expresión de deseos, las negaciones, la negociación, los acuerdos y los desacuerdos.
- Proporcionar un lenguaje específico y clarificador sobre el tema.
- Facilitar que la comunidad adquiera y desarrolle los conocimientos y actitudes necesarios para comprender y vivir su sexualidad de una manera más san, positiva, responsable y gratificante.
- Resolver dificultades, disminuir las situaciones de riesgo y las consecuencias negativas de la vivencia de la sexualidad.
- Ofrecer apoyo informativo, de orientación y asesoramiento sexual a profesionales que trabajan con personas jóvenes en el ámbito formal y no formal, incluido madres y padres.
- Orientar hacia la utilización de los recursos y servicios especializados existentes en la comunidad.
- Dotar al profesorado de los centros educativos de estrategias concretas para la intervención en el aula.

- Facilitar al profesorado los conocimientos científico-técnicos, sociológicos y didácticos necesarios para promover la educación en valores y favorecer el desarrollo de capacidades y habilidades para trabajar la educación afectivo-sexual en el aula.
- Posibilitar un espacio de diálogo para que las familias puedan expresar inquietudes, resolver dudas, intercambiar experiencias, etc. para mejorar la comunicación con hijas e hijos en cuestiones de afectividad y sexualidad.

Además, deberán desempeñarse las siguientes tareas:

- Impulso y consolidación del servicio en Erandio.
- Realización de las intervenciones necesarias en los centros educativos del municipio.
- Realización de los cursos, talleres, jornadas, seminarios, charlas u otros adicionales que sean necesarios.
- Suministro de todos los materiales necesarios para el óptimo desarrollo de la actividad.
- Coordinación periódica con el Área de Juventud para determinar la programación, la ejecución y el contenido específico de las intervenciones, así como posibles incidencias.
- Coordinación directa con centros educativos y alumnado.
- Realización de encuestas de evaluación a las personas usuarias.
- Informes trimestrales en caso de que se soliciten.
- Evaluación de las sesiones realizadas y análisis de los resultados.
- Realización del informe final.
- Cuidar los valores y tratar de eliminar estereotipos, prejuicios e imágenes negativas.
- Fortalecer lazos de unión entre la población joven de diferentes barrios del municipio.
- Facilitar canales de recogida de información, necesidades, sugerencias y propuestas del colectivo joven.
- Elaborar propuestas de mejora e innovación del proyecto.
- Derivar posibles casos de violencia machista contra las mujeres a los servicios municipales oportunos.
- Coordinarse con el personal de otros programas educativos dependientes del resto de áreas municipales cuando sea necesario.
- Cualquier otra tarea que resulte de interés para el correcto desarrollo del servicio.

Deberá prestarse un servicio de, al menos, 295 horas distribuidas entre la intervención, el asesoramiento y la formación. Además, se incluirán 24 horas de coordinación y para la elaboración de informes u otras tareas administrativas.

Los centros a los que se ofrecerá el servicio serán: Ignacio Aldekoa, Jado Ikastetxea, Goikolanda, Altzaga Ikastola, IES Astrabudua, IES Erandio, Formación Profesional Básica e IES Ategorri.

La repartición de las horas se hará de forma dinámica, de manera que cada año lectivo se distribuyan y adapten en base a los grupos y necesidades concretas de cada aula y de cada centro educativo. El reparto se consensuará entre la entidad, el centro educativo y el Ayuntamiento. Se organizará de tal manera que el alumnado no repita contenidos.

4.- FORMACIÓN DEL PERSONAL DE LA ENTIDAD ADJUDICATARIA

El personal que ejecute las actividades indicadas previamente deberá contar con las siguientes características:

- Titulación superior en alguna rama del área social (Psicología, Educación Social, etc.)
- Diploma en Educación Sexual y Asesoramiento Sexual, Máster en Sexología o equivalentes.
- Certificado C1 de euskera (o equivalente)
- Experiencia demostrable de, al menos, 3 años en acciones similares con adolescentes, grupos de trabajo de jóvenes y centros educativos.
- Certificado negativo de delitos sexuales, con una antigüedad máxima de 6 meses

5.- INFORMES PARCIALES Y SEGUIMIENTO:

La entidad adjudicataria deberá entregar al Área de Juventud del Ayuntamiento de Erandio, antes del 31 de julio de cada año de prestación del servicio, una memoria final con valoración cualitativa y cuantitativa de las acciones llevadas a cabo. Esta memoria deberá contener, como mínimo, los siguientes puntos:

1. Descripción del desarrollo de los programas, cronograma e idioma en el que se han desarrollado
2. Grado de cumplimiento, valoración cuantitativa y cualitativa
3. Métodos de recogida de la información e indicadores de resultados
4. Cantidad de participantes y características (recogida de datos desagregada por edad, sexo, procedencia y aquellas otras que se consideren relevantes).
5. Fondo documental, fotográfico y audiovisual generado en el desarrollo de los proyectos
6. Sugerencias y propuestas para mejorar de cara al futuro.

Además, a efectos de coordinar el servicio correctamente, se realizarán reuniones periódicas de seguimiento y control con la entidad y/o con la persona coordinadora de los proyectos. Se podrá solicitar la presencia de dicha persona para reuniones puntuales de coordinación general o para charlas específicas.

Se estima que para estas labores serán necesarias 24 horas.

6.- OBLIGACIONES DE LA ENTIDAD ADJUDICATARIA

6.1.) ORGANIZACIÓN:

La entidad adjudicataria dispondrá de una organización con elementos personales y materiales suficientes para la debida ejecución del contrato.

6.2.) DESIGNACIÓN DE RESPONSABLE:

La entidad adjudicataria deberá nombrar una persona responsable, a fin de que la represente ante el Ayuntamiento de Erandio en todo lo concerniente al trabajo.

Dicha persona, que será la responsable del trabajo que se contrata, tendrá el poder suficiente para tomar en nombre de la entidad adjudicataria las decisiones oportunas, sin que las mismas puedan

verse afectadas por falta de capacidad decisoria, ya sea legal o formal, siendo la única interlocutora válida para todos los asuntos relativos al contrato.

6.3.) RECURSOS HUMANOS:

En el apartado de recursos humanos la entidad deberá contar con personal suficiente y cualificado para las tareas que se deben desarrollar en ejecución del presente contrato. Además, deberá atender a una presencia equilibrada de mujeres y hombres.

a. La entidad adjudicataria determinará, sin perjuicio de lo señalado en el párrafo anterior, de forma exclusiva las necesidades de su personal. En todo caso deberá disponer de un equipo humano que, debidamente coordinado, demuestre su capacidad para llevar a cabo, en tiempo y forma, los servicios a prestar.

b. Todo el personal pertenecerá exclusivamente a la entidad adjudicataria, sin que exista relación jurídica o laboral alguna entre el citado personal y el Ayuntamiento de Erandio, ni durante la vigencia del contrato ni en ningún momento posterior.

c. Todas las altas y bajas del personal del servicio, serán puestas en conocimiento del Ayuntamiento de Erandio. Se entregará el currículo y la documentación laboral de las nuevas incorporaciones, así como las acreditaciones del perfil lingüístico.

d. En el primer mes de contrato se entregará la documentación relativa a los contratos del personal, así como el seguro de cobertura de las personas trabajadoras.

e. En cumplimiento de La Ley Orgánica 1/1996, de Protección Jurídica del Menor, modificada por la Ley 26/2015 y la Ley 45/2015, de voluntariado se establece la obligación de que se aporten certificados negativos del Registro Central de Delincuentes Sexuales para todos los profesionales y voluntarios que trabajan en contacto habitual con menores. Deberá entregarse dicho certificado al dar comienzo la prestación del servicio.

6.4.) EUSKERA:

Tal y como establece el Plan de Uso del Euskera 2018-2022 del Ayuntamiento de Erandio: “En las relaciones entre contratista y el Ayuntamiento de Erandio se empleará normalmente el euskera. A los efectos de la ejecución del contrato se entiende por emplear «normalmente el euskera», lo siguiente:

a) En las comunicaciones verbales, el personal con conocimiento de euskera que en funciones de ejecución del contrato se dirija al Ayuntamiento de Erandio, se expresará inicialmente en esta lengua. Si el Ayuntamiento de Erandio se dirige en euskera a personal adscrito a la ejecución del contrato que no tenga conocimientos suficientes de esta lengua, la entidad encargada de la ejecución habrá de facilitar inmediatamente los medios o personal con capacitación lingüística en euskera necesarios para que la relación con Ayuntamiento derivada de la ejecución del contrato pueda desarrollarse en euskera.

b) Las comunicaciones escritas se redactarán en euskera y castellano, salvo que emisor y receptor opten por el euskera”.

Así mismo:

a) “En los contratos de gestión de servicios públicos en todo caso, y en los de concesión de obra pública y de servicios, cuando la ejecución del objeto contractual incluya la prestación de servicios a la ciudadanía o conlleve relaciones con terceras personas o ciudadanía en general, la lengua a utilizar en la comunicación, tanto oral como escrita, entre la entidad adjudicataria y

las personas con las que haya de relacionarse en ejecución del contrato será aquella que elija la persona usuaria o tercera, en cada caso. Cuando no conste expresamente opción alguna, las notificaciones y comunicaciones de todo tipo que la entidad encargada de la ejecución dirija a las personas físicas y jurídicas se realizarán en las dos lenguas oficiales, incluyendo las facturas y otros documentos de tráfico, sin perjuicio de que en cualquier momento la ciudadana o ciudadano pueda ejercer su derecho a la opción de lengua y pueda demandar el uso de una sola de las lenguas oficiales. En cualquier caso, la entidad contratista deberá destinar los medios materiales y personales que fueran necesarios para que la atención, información y comunicación con el público destinatario del servicio pueda hacerse en todo momento en euskera".

b) En los contratos de servicios que tengan por objeto la realización de estudios, informes, proyectos u otros trabajos de similar naturaleza, se establecerá como condición de ejecución la obligatoriedad de entregarlos en ambas lenguas oficiales, incluidos los interfaces textuales y sonoros de los diferentes software. No obstante, cuando el conocimiento y uso del euskera esté específicamente vinculado al objeto del contrato, el Pliego de Prescripciones Técnicas podrá prever que la prestación se realice íntegramente en euskera.

c) En los contratos de gestión de servicios públicos que impliquen la prestación de servicios a la ciudadanía, la entidad contratista vendrá obligada a emplear el euskera y el castellano en la rotulación, en las comunicaciones por megafonía, en las instrucciones de uso, en el etiquetaje y en el embalaje de los productos que produzca y en los documentos que genere la prestación del servicio.

6.5.) IGUALDAD Y PERSPECTIVA DE GÉNERO:

En la ejecución del contrato, la entidad adjudicataria garantizará la igualdad entre mujeres y hombres en el trato, en el acceso al empleo, clasificación profesional, promoción, permanencia, formación, extinción, retribuciones, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral. Además, durante la ejecución del contrato mantendrá medidas que favorezcan la conciliación de la vida personal, familiar y laboral de las personas. Se podrá requerir a la entidad la acreditación y explicación de la aplicación de las medidas precitadas.

No se empleará un lenguaje sexista en los documentos, publicidad, vídeos y materiales realizados durante el programa, ni tampoco imágenes que muestren cualquier tipo de discriminación o estereotipo sexista. Asimismo, en cuanto a la imagen de las mujeres se deben fomentar valores como la igualdad, la diversidad, el equilibrio de representación y la diversidad de roles de género y de identidad.

Se tendrá en cuenta en el proyecto, los objetivos y las actividades propuestas, las diferencias sociales que afectan a las mujeres. Por ello, toda la documentación que se genere será examinada por el Área de Juventud previamente a su uso y difusión.

6.6.) VALORES

Además, en todas las acciones que se lleven a cabo, de manera directa o transversal, se fomentará la participación activa y crítica y se trabajarán las habilidades sociales como aspectos prioritarios.

7.- OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO DE ERANDIO

1. Comunicará las directrices y criterios de trabajo para que se tengan en cuenta a la hora de desarrollar los proyectos.

2. De manera excepcional y con el objetivo de facilitar la comunicación del proyecto a lo largo del tiempo, independientemente de la entidad que lo ejecute, el Ayuntamiento facilitará una dirección de correo electrónico (esex@erandio.eus) y un teléfono móvil con línea asociada.
3. A fin de comprobar la correcta prestación del servicio y el cumplimiento íntegro del contenido de estos pliegos, designará a una persona como responsable, cuyo nombre se comunicará a la entidad adjudicataria.
4. Informará sobre cambios o aspectos que puedan repercutir tanto en la metodología de trabajo como en la gestión diaria.
5. Facilitará las relaciones con las diferentes entidades sociales del municipio.